

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUN SAILA

4281

IRAGARKIA, 2024ko irailaren 9koa, Industria Administrazioiko Bizkaiko Lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez berriz ere jendaurrean jartzen baita eguneratutako proiektu hau: baterien bidez energia biltegitzeko «BESS Lajara» izeneko proiektua Güeñesko udal-mugarlean (Bizkaia).

Jendaurrean jartzen da berriz ere aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zaion instalazio elektrikoa, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretuan xedatutako ondorioetarako (2020-04-24ko EHAA) –dekretu horren bidez arautzen baitira energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak– eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53. artikuluan (2013-12-27ko BOE) xedatutakoarekin bat etorriz, instalazioaren kokapena aldatu delako.

Esp.: 48-GE-Y-2024-00016.

– Eskatzailea: BESS Development 2, SL.

– Kokapena: Güeñesko udal-mugarlea.

– Exekuzio-materialaren aurrekontua, guztira: 12.024.774,81 euro.

– Helburua: baterien bidez energia biltegitzeko sistema berria jartzea, bertan dagoen 30 kV-ko sarera konektatuta.

– Instalazioaren ezaugarriak: Ignacio Olabarri Lasa industria-ingeniariak 2024ko uztailean sinatutako proiektuan adierazitakoak, espedientean daudenak.

– Eskaeraren helburua: aldez aurreko eta eraikitzeko administrazio-baimena.

Eta hori guztia argitara ematen da nornahik proiektua azter dezan sail honen Bizkaiko Lurralde Ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao), dagokion udaletxean edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Egokitzat jotzen diren alegazioak bi aletan aurkeztu beharko dira Lurralde Ordezkaritzan, hogei eguneko epean, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bilbao, 2024ko irailaren 9a.

Lurralde-ordezkarria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.